

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

2021eko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kobrantza iragarkia eta ordaintzeko epearen jakinarazpena

Ordaintzeko epeak, epea berriro abiatzea:

A) Borondatezko epea: 2021eko martxoaren 1etik maiatzaren 1era arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak.

B) Betearazte aldia: 2021eko maiatzaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundee-tan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bu-legoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalak duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinaraz-teko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 arti-kuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze-ko erre-kurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Bo210219A.

Oion, 2021eko otsailaren 19a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN